

# Afrikari begirada bat M<sup>a</sup> Jesusen eskutik

JONE IDIAZABAL

M<sup>a</sup> Jesus Urruzola Zeberio 1944.eko urriaren 3an jaio zen, sei mutilek osatutako familiaren 3. haurra zelarik. Hamar urte arte eskolan ibili ondoren Bagües-Erriondotarren bi anai zaharrenak zaintzeko asmoarekin joan zenean, amonak ikusi eta, oraindik txikia zela eta, "Zu zaude zaindu beharrean" esan zion. Halere hamalau urte bete arte, goizetan lan hartan jardun zuen, arratsaldetan bi ordu Pioneko eskolan ikasten jarraitu zuen bitartean.

Hamalau urtekin "Laneran" hasi zen lanean lantegia itxi arte 1975.ean. Ondoren Seguritate Sozialeko "18 de Julio" klinikan hasi zen, klinikako auxiliar bezela. Hemen lan egin zuen bitartean oporrak, "Franciscanas Misioneras de Maria" monjen ardurapean Guadalajaran dagoen Trilloko leprosondegian igarotzen zituen. Han ezagutu zuen beraien jarrera eta misioen irrika sartu zitzaion, "18 de Julio" klinika itxi zenean Erresidentzian lan egin ordez gaur daraman bidea, haiei esker hartu zuen.

Lan honetaz gain, 16-17 urterekin, Donostiako Goizaldiko Ana M<sup>a</sup> Igartuarekin "Accion Katolikan" euskal dantzak ikasi zituen, beste zazpirekin, Ereintza elkarteko lehenengo taldea osatuz. Nahiz eta haserakoak utzi eta kide berriak sartu, ikastolako umeei dantza erakusten hasi zen Arantxa Idiazabalekin Pio Etxeberriaren etxean. Hemendik aurrera toki ezberdin ugarran jarraitu zuen eta fandango eta arin-arineko txapelketa askotan

ibili zen berak prestatutako bikoteekin. Bikote horietako partaide-etako bat ni neu izan nintzen eta zin egiten dut berari esker oroi-pen ugari eta oso atseginak ditudala. Baina garai haiek euskaldunontzat zailak ziren eta askoren ezaguna den pertsona batek "oso ikusia zegoela" esan zionean dantza mundu hori uztea erabaki zuen. Beti zerbait ikasi nahian, astero kristau talde batekin biltzen hasi zen Kaputxinotan eta hitz saio haueri esker besteen pentsakerak ezagutu eta gauza arraro bat ez zela ikusi zuen

1982an hasi zen buru belarri bere bizimodu berri honetan. Madrilera joan zen eta goizetan San Francisco de Asis ospitalean lanean eta arratsaldetan Klaretianos Teologiako ikasketak egiten hasi zen. Guztira sei urte igaro zituen han 1985.eko irailaren 8an, bere lehenengo botoak Iruñean bete eta 1988.ko abuztuaren 15ean azken botoak Burgosen bete zituen. Madagaskarrera joateko destinoa eman ondoren, irailan Pariseko Lizeora frantsesa ikastera joan zen, Asia, Amerika eta beste hainbat herrialde ezberdinetako hogeitabat lagun elkartu zirelarik. Oso interesgarria iruditu zitzaion, lurra, eta berarekin pertsonak, nola mugitzen diren jabetuz.

Urriaren 28an, ama gaixotu zela eta, Madrilen dena utzi eta etxera etortzeko agindua eman zioten. Abenduaren erdialdean



*Dispensarioan.*

Madrilera bueltatzeko esan zioten berriz, ama ez atzera eta ez aurrera baitzirudien. Horrela, Angolara joatea eskeini zioten, gudan zeudela eta arrisku gehiago izango zituela eta ondo pentsatzeko argi esanez. M<sup>a</sup> Jesussek prest zegoela erantzun zuen, zer zen ez jakin arren, nola hala abentura bat baitzen! Erromako buruak telefonoz eskerrak eman zizkion, eta Eguberriak pasa ondoren joatekotan gelditu ziren. Destinoaren aldaketaren zergatia ez zuen galdetu ere egin, obeditu, besterik gabe. Madriletik etxeratu zenean senide guztien aldetik animo eta lasaitasuna jaso zuen, bere bitzta egiteko bultzatuz eta beraiek ama zainduko zutela esanez. Ama Eguberri egunean hil zen eta honek M<sup>a</sup> Jesusi hemendik alde egiteko nolabaiteko askatasuna senti arazi zion. Baimenak azkar lortu ondoren urtarillaren 8an Angolarako bidea hartu zuen. Baina bileterik ez zegoela eta Portugalen egon behar izan zuen San Sebastian bezperan abioia hartu arte, hala ere bidaian eguna ospatu zuen.

Afrikako herrialde honetan portugesa ere hitz egiten da, Portugaleko kolonia izan baitzen. Bitzta sinplea egin behar zuen, hizkuntz hau herriarekin ikasiko zuenaren segurtasuna zuelarik. Bere familian hori lehen ere gertatu omen zen gainera, bere izeba baserritar monja batek frantzesak ikasterakoan, erdera ahaztu baina euskera bihotzean mantendu omen zuen.

Luanda, Angolako kapitalera iritsi zen eta, aurrez jakin arazi zioten bezala, herrialde honetara sartzen zen lehenengo aldia zenez, atzerritar karta eman ala ez erabakitzeke, elkarriketa luze eta sakon bat egin zioten: erlijiosa zergatik zen, politika gustokoa zuen, eta nondik nora jotzen zuen..., noski, erantzun mamituak eta neurtuak eman zituen. Hiriarengandik jasotako lehenengo zirrara izugarria izan zen. Gudako abioi zaratsatuak, edifizioetako kristal guztiak hautsita, zikinkeria pila non-nahi... Hemen utzitakoekin erabateko kontrastea! Luandan hiru egun pasa eta ipar aldera, Zaireko muga ondora, bidali zuten, Nbanzakongo-ra, Gipuzkoa baino txikiagoa den lurralde batetara.

1908. urtea ezkerreko konbentu gisa erabiltzen den etxe handi batetan, bi portugesez, Hong Kongeko bat, indiar bat, espainiar bat eta M<sup>a</sup> Jesus, bertako prenobiziado egiten ari ziren beste hiru emakumeekin izan zuen bere lehenengo benetako bitzokia. Hauetako batek hospitalean lan egiten zuen eta besteek Karitatean, frontera ondoan zeuden errefuxiatuei jana eramaten adibidez. Jana egiteko gasik ez eta menditik ekarritako ikatzarekin, su bajaran, astean bi aldiz egin behar izaten zuen M<sup>a</sup> Jesusen janaria. Sukaldeko lana izango ote da nereaa? pentsatzen omen zuen, Euskal Herriko mendi eta paisaia zoragarriak gogoratuz. Baina arratsaldero, ordubietan, Jaungoikoari bisita egin eta berekin zegoela aurkitzen zuen pakearekin, zalantza guztiak ahazten zitzaizkion.

Hamabost egunetik behin, kide portugesez bat eta M<sup>a</sup> Jesus txabola handi bat zirudien espetxera joaten ziren hamar minutuko bisita egitera. Haseran hogeitamar presoek aurpegi zikin eta zorrotz haiek ikusterakoan bai bildurtu ere. Gobernuaren komunismoa zegoenez erlijioaz ezin zuten hitzik egin ere baina, astea nola igaro zuten eta gauza xumeez hitz egiten zuten zigarro bana ematen zien bitartean. Angolan argi elektrikorik ez dagoenez, gehienak goizeko bosterdietako jeikitzen dira eguzkia galdu arte baratzetara joateko. Militarrek goizeko seiretan ejerzizioak egiten hasten dira arratsaldeko seiterdiak arte, orduan denak erretiratu behar izaten dute. Guda egoera honetan pertsona arruntak ezin

dute legedia bete, adibidez ezin dira ezkondu, eta elkarrekin bizitzaren jartzen dira familiak osatuz. Noski dendarik ez dago, eta Gobernuak administratzen dituen guda dela eta ehun bat kamioietan datozen janari, xaboi, eta abarrak bidean erasotuak izango dira hilak eta guzti daudelarik, eta sei hilabete luze igaroko dira herriarengana iristerako.

Gotzai gazte beltz batek zuzentzen zuen Kaputxino italiar komunitateak zeukan land-rover batean, zortzi urteetan pasa ezinik egon ondoren, kaputxino bat eta M<sup>a</sup> Jesus hirurogei kilometrorra zegoen berrehun pertsonak osatzen zuten herrirka batera joaten ziren. Misiolariaren zain egoten ziren baratzetara joan gabe aste eguna izan arren eta militarrek biltzen uzten ez zieten, baten bat agertu ezkerreko gaixoen bat ikustera joan ziren aitzakia erabili beharra zegoen. Otoitz egiteko aukera bakarra zen eta 1975.ean kolonia portugesa utzi zutenetik horrela mantendu zuten fedea ixilean. Izugarriko ongi etorria egiten zieten, zeukaten guztia ematen zioten, kola gris baten antzekoa zen "mandioka" oinarriko janaria palangana batetik eta platerara atera eta hustutzen zenuenean ezinean bazeuden ere berriro beteaz.

Nbanzakongon hiru hilabete igaro ondoren hego aldera bidali zuten, kolonoen garaian turistikoa zen Bengela hirira. 200.000 biztanle inguru ditu, erdiak txaboletan bizi dira baina palmerak dituen kale argitsu zoragarri batean, militarrek zaintzen dituzten turista aberatsek eginiko etxe polit batzuetan, gobernu eta partidukoak bizi dira. Hezitzen ari diren bertako bik, seminarioan irakasle dagoen mexikar bat eta M<sup>a</sup> Jesusen berak osatutako komunitate batean bizi da. Langile kontsideratu ondoren, Gobernuak hileroko jana har zezaten rasionamentuko kartilak eman zizkieten. Diru sarrera bakar hura bizitzeko gutxi izanik, M<sup>a</sup> Jesusen kotxea hartu eta baratzetatik zehar ibili behar izaten zuen jan bila. Oztopo ugari bilatzen zuen, batzuetan egoera iraingarriak ere bai. Bi urteetan ibili zen txofer komunitatearen zerbitzura, Batikano II.ak eskean ibiltzea debekatu zuen arte.

Lana bilatu asmoz, hospitalean kanpotarrak onartzen ez zituztela jakinda ere, aspaldidanik bertan lan egiten zuen monja batengana aurkeztu zen, Osasuneko delegatuarengana joateko esan ziolarik. Medikuek honengana joan eta jakin zuen sekzio bakoitzeko pertsona bat hartzeko asmotan zebilela. Iadanik hiru urte daramatza klinikako laguntzaile lana egiten. Hospitalean Angola bertako erizain askok lan egiten dute, sendagileak berriz sobietarrak dira, bi urtetarako kontratatuak. M<sup>a</sup> Jesus hamazazpi ohe dauden toki berri batetan jarri zuten, gaixo zailenetakoak dauden tokian, astean behin, beste leku askotan lan egiten duen sendagile bat etortzen den tokian. Bertan erizain ikasketako praktikak egiten dituzte, irakasle batek asignatura batzuk irakasten dielarik.

Angolan merkatu beltza dago baita medikazioarekin ere eta ondorioz Eritetxera medikazio gutxi iristen da. Desbizio horiek kontrolatzeko agindu zioten M<sup>a</sup> Jesusi, pentsatuz erlijiosa bati bere jarrera ikusiaz han galduta dauden balore moralak, etika, serietatea, e.a. errekueratuko zirela. Eta M<sup>a</sup> Jesusen daraman taktika zera da: gaixoena behintzat ez dezatela hartu, eskatu dezatela, eta beti behar baino gehiago eman. Beharrak eragiten duena! Sukaldeko xaboi erdi bat utzi eta hurrengo egunean ez dago, baldeak, termometroak, toalla txiki batzuk, desagertu egiten dira. Oso era prekarioan bizi dira, komunetan ez zegoen aterik eta bainatzeko bi plastikozko jarri behar izan zituen.



Gaixoa ahalik eta goxoen edukitzen saiatzen da. Jefeak dio garbitasunak baino medikazioak garrantzi gehiago duela baina zorriak kentzen, oheak egunero aldatzen, beroaldietan batik batik, eskuz garbitu eta lurrean zabaldu ondoren, bidean ez badira desagertzen behintzat, egun batetik bestera egiten diren izugarriko armiarma sareak kentzen aritzen da M<sup>a</sup> Jesus, lan apala baina guztiz garrantzitsua. Tela, altzairu fabrikak eta badaude, baina gauzak Gobernuaren bidez lortu behar dira. M<sup>a</sup> Jesusek almoadentzat lana eta tela lortu zituen klausurako monja batzuei eraman zizkien josteko eskatuz, dohainik noski. Orain koltxoien atzetik dabil, agian Erreterian egon denean lortu duen dirua dolarretara aldatuz lor ditzake.

Klinikan goizeko zazpietatik eguardiko ordubataerdiak arte lan egiten du. Berak ereindako haziak fruituak eman ditu dagoeneko pertsona diferente bat dagoela nabari dela esan omen diote. Astean bitan, arratsaldeetan, sei kilometrotara Karitasek duen Unicefek hornitu eta M<sup>a</sup> Jesusen komunitatearen ardurapean dagoen dispensario batetara joaten da beste bi lagunekin. Oso behartsuak diren 150 bat lagun, paludismo, disenteria, goseak eragindako anemia, diarreak este guzia desegin eta izugarriko oinazeekin dagoen jendeak betetzen duen dispensario batetara. Portugesa ez dakitenez, "umbundo" bere hizkuntzan eseri arazi eta zer egin behar duten erakusten diete.

Beraien ardurapean zortzi ermita dituzte, kilometro askotan sakabanatuak. Fede izugarria duten pertsona xume, behartsu, zapalduak osatzen duten herrixka hauetara apaiza batekin joaten da errezatzerara, ez gurutze, ez irudi gehienez Portugaldik jasotako Fatimako edo Aita Santuaren egutegia dagoen ermita umiletan elkartuaz. Jendea painuekin bildua eta hankautsik ikusteak, behin entzundako bezperak buruz errepikatzeak, lurraren koloreak, pototo txiki batean petroleoa jarri eta lanparatxo bat pizteak, M<sup>a</sup> Jesusi Katakunbak gogorarazten omen dizkiote, Testamentu Zaharretik ateratakoak bailiran! Fedea oso konprometitua ez dela izango dio baina beraien analfabetismoan ezin da gehiago egin.

Oraindik gauza gehiago ere egiten ditu! Egunak oso beteak dauzka, beti korrika eta erabat lanpetua bizi da. Ostiral arratsalde-

tan, daukaten nobiziadoan heziketa dauka, larunbatetan ezkonberri gazteekin Diozesiak eraturako famili planifikazioa lantzen du. Beraien helburua prokreazioa izanik sendi gehienetan, ezjakintasunean, zazpi edo bederatziz seme-alaba izaten dituzte baina garbitasun eta osasun ezak hil asko eragiten ditu.

Angolan ikasteko aukera gutxi dago, OHO mailarekin irakasten hasten dira zuhaitz batenpean, umeak esertzeko bere lata hartu ondoren. Gainera hemezortzi urte betetzerakoan edade militarra dela eta, ikasketak utzi behar dituzte, hortaz ikasketa maila oso baxua dute. Gazteek nahi haundia dute. Lau gazte mediku ikastera kanpora joan nahi zutela esanaz M<sup>a</sup> Jesusengana joan ziren eta ea berak zerbait egin ahal zezakeen. Oso zaila da zeren Estatuak eman behar bait die baimena eta irteteko beka edo ikasketa poltsak eduki behar dituzte. Estatuak berak Kubara bidaltzen ditu preparatzerara. Angolako Huambo hirian fakultate bat badago baina guda dela eta hango bideak itxirik daude, beraz arazoa sartu-atera ezina da; Luandako fakultatean berriz dagoen korrupzio izugarriak mugatzen du sarrera, eskupean dolar asko eman behar izaten dira sartzeko.

Orain arte guda aipatu dugu baina gehixeago hitz egingo dugu egoera orokorraz, kondaira piska bat azalduz. Portugesak Angola kolonizatua zuten bitartean lan asko egin omen zuten: lur azpiko ura motor bidez atera, kilometroko baratzetan, tipula, tomate, e.a. landatu, lurralde batzuetan platanondo asko adibidez eta azukreko kaina erein, e.a. Etxeko lanak, sukaldaritza, erropa josten eta, erakusteko zegoen barnetegi bat eraiki zuten baina guda hasterakoan gobernuak hartu zuen. Orain berriz dena txiki-txiki egina dago. Kolonoekin ez omen zuten goserik pasatzen, gaur egun gosez hiltzen dira.

Hamar milioi lagun bizi diren estatu honek 1975.ean independentzia lortu zuen, Sobiet Batasunean hezia den Eduardo Dos Santos lehendakari komunista buru jarriaz. Oposizioko indarra Unita gerrilla da, Ipar Ameriketako laguntzarekin burutua diotenez, orain arte zelai, mendi, eta basamortuan burrukatzen zuten, azkenaldian jadanik hirietan sartu dira. 1991.eko maiatzaren 31n pakea sinatu zen Portugalen eta 1992.eko irailaren 29an hautes-



*M<sup>a</sup> Jesus Bengelako bere etxe ondoan.*

kundeak egin ziren. Mitinak egin ziren, ahalik eta dokumentazio gehiena atera zen herriari demokrazia zer den esplikatuz asmoz, eleizak berak ere parte hartu zuen. Politika arloan analfabeto izan arren jendeak erabaki bat hartu zuen baina Unita lehengora bueltatu zen, hauteskundeak iruzur bat izan zirela esanez.

1992.eko azaroaren batean hasi eta hiru egun iraun zuen gudan M<sup>a</sup> Jesus eta bere kideak bonbak pasatzen ari da, harrapatuko zituztelakoan, sukaldeko lurrean etzanda, hoskina gorputz guzian zutelarik, mugitu ezinik egon ziren hiru egunak. Xabierren

emandako gurutzera eskuan zuelarik, misterio bat errezzatzeko gauza izan gabe, hiltzeko zai, beldur ikaragarria pasa zuen. Orain bai ulertzen zuela Iruñean misioetara zihoala eta egindako agurrari esan ziotena: "Misioa arrisku bat da, gurutzeari jarraitu eta bizitzaren oinarri bataioa dela, gogoratzeko une larrienetan". Bertako fededunek lekzioa erakutsi omen zioten, "Jaungoikoa bere semeetaz ezin zela ahaztu, ez zuela herri oso bat hiltzen utziko" esaterakoan. Une hartan, fede gutxiko emakumetzat hartu zuen M<sup>a</sup> Jesusek bere burua.

Gudak kontrola galdu arazten du, txikizio sinistu ezinak ekarri, batak eta besteak eraginda, jendea oso markatua dago. Bengela hiritik 700 edo 800 kilometrora dagoen Huambo hirian bizi direnetaz, oinez ihes egiten dutenek ekarritako berri eskasak besterik ez daude, Gurutze Gorria ere ezin da hara sartu. Alde egiteko saialdietan jende asko hiltzen da, jarraitu ezinik bilatzen badira, beraien burua salbatuko duten itxaropenarekin umeak bidean uzten dituzte. Beste zonalde batetara iristeko Kubal hibaia zeharkatu behar da soka bati helduta militarrei diru mordo bat ordaindu ondoren. Salaketa ugari egon dira honi buruz baina alferrik. Zenbat pertsona hil dira urak eramanda! eta besoetan daramazun umea erortzen bazaizu, soka ezin askatu zu zeu atzetik joan nahi ez baduzu!

1993.ko urtarrilaren bostean hasi eta apirila bitarte berriro guda lehertu zen, M<sup>a</sup> Jesusek oraingoan nerbioak hobeto kontrolatu omen zituen. Bere etxetik gertu pertsonaz betetako kotxeak hurrengo egunean kanposantuko atean aurkitzen zituzten hilik. Izugarritzko heriotzak izan dira, famili osoak erahilak, umezurtz ugari geldituz. M<sup>a</sup> Jesusek han bizi behar du eta zuhurra behar du izan, ezin du esan hilketak nola izan ziren, traidoreak izan zirela bai. Han bizi eta ikusitakoak asko mindu eta zauritu du M<sup>a</sup> Jesus.

Orain demokrazia deitzen zaion egoera batetan bizi dira presidente berdinarekin, pertsonaren izakera eta kontzientzia egun batetik bestera ez dela aldatzen pentsatu arren. Egia da gehiago ateratzen dela bizi molde ezberdinak ikusi eta herrialde demokratikoagoak bisitatuz. Aldaketa batzuk nabaritzen dira, eleizak berak askatasun gehiago dauka, gaur egun ermitetara joan zintezke. Elkarrizketak eta negoziazioak egon dira Presidentea eta Unita-koen artean. Baita ONUk kontrolatu duen gerrillaren geldiune bat ere.



1965-7-24. Eskubiko atzekaldeko birugarrena.

Gizarte berri bat egiteko ilusio handia dago, pakea lortuko balitz besteak bezela izateko helburua beteko luteke, entusiasmo eta gar ikaragarria daukate eta asko sufritu badute ere oso adiretsuak dira. Batzuek diote beltzen artean inoiz ez direla ezertara iritsiko, baina ikusteke dago, ez baitaie uzten!! Beltzek jakin badakite lehendabiziko munduari esker beti pobre izango direla. Eta egia da, Angolan basamortu asko dagoela baina oso aberatsa da, iparraldeko Saurimo hirian, diamantezko meategi ugari dago baina txurien eskuetan.

M<sup>a</sup> Jesusek zahartzaroan hona etorri nahaiko luke patxara haundiagoan bizi ahal izateko, osasuna ere denboraren poderioz ahultzen dihoakio. Hortara iristeko denbora pila pasa beharko du eta nere desiorik haundiena da beltzek beren burujabetasuna lortzen lagundu dezala. Ea geure burua hain azkartzat dugun txuririk, uzteko kapaz garen. Berak egiten duen laurdena egingo bagenu, gizartea paketsuagoa eta zoriontsuagoa izango litzateke. Ez al da lortu beharko gendukeena? Gu guztion eskuetan dago.

